

ANAITASUNA

B I Z K A I A

162 gn. zenb. - 1968, bagillak 15 - 4 pta.

"GEREDIAGA" ALKARTEAK ERATUA

EUSKAL IDAZLEEN BATZARRA

Zegaitik, zelan eta zetarako literatura euskerearen batasuna?

Bizkaiko Ermuan, bagillaren 28'tik 30'era, Euskal Idazleen Jardunaldiak izango dira, literatura euskerearen batasuna dala gaitzat. Batasuna zegaitik, zelan, zetarako? Ona emen «*Gerediaga*»ren deiak diñoana:

Erri lez iraun al izateko, erri-alkartasun baten bizibidea aurrera erodateko, izakera jatorrerri gogoz eusteko, erri batek bearrezkoa dau literatura batasunezko bategaz jabetzea.

Gure izkuntzeak, gaurko munduan, eskolarik bage, Unibersidadetik bage, agintarien jabetasunik bage, Estadurik bage, ez radio, ez egunkari, ez zinema, ez telebista..., ta beste izkuntza indartsuagoak azpianean diarduela, ez dau bizitza luzerik.

Ta orrek beartzen gaitu, bere bizitzearen alde artu geinkezan jokabideak aztertzeraz.

Eskola ofizialik ez dogu, ezta artzen direan erabagiak euskaldun guztien artean zabaltzeko biderik be. Baiña idazleok alkartueziñik ez dogu, literatura euskerearen batasunaren alde jokatu al izateko. Euskalkiak oiñarri direala, euskalki guztien gaiñetik eta guztien lokarritz. Batasun guztia lortzen ez bada be, alkarrengana urreratzeak biderik erdi egingo deusku.

Beste izkuntzak —erri aurreratuen izkuntzak— aspaldi egin eben ori. Geienak Estaduak beartu ebazan, goitik beera aginduaz. Eta ez eben olako jokabiderik artuko, izkuntzearen kalterako izan balitz. Eta Estadurik ez daben erriak, zibilizaziñoz aurreratuak direan erriak, euren kabuz artu ebezan erabagiak. Esate baterako, katalanak. Eta literatura aberatsago bat izatera lagundu deutse; eta izkuntzeari berari be, kultura maillan, beste-lako goitasun bat emoten deutse.

Literatura izkuntzearen batasuna, erri guztiak, tradiziñozko literaturatik eta errien izkuntza biziaren tartetik aurrera joaz, egin

dabe. Izelkien gaiñetik indar-barritu izkuntzea, izkelki euren muiña izan dadin.

Erri baten lokarriak gordetzeko, izkuntza literario bat bear da. Ta euskalkien indar guztia be, batasun orren bidez emon bearra daukagu. Ta batasuna izan dadilla euskalki guztien iturburu lez.

Euskerea, edozein izkuntza bere egoera naturalean lez, denporeagaz aldatuaz, euskalkiak alkarrengandik urrunduz, zatituaz, pikortuaz doa, suntsitu arte. Lenago alkarrengandik urrago egozan-euskalkiak, izkuntza desbardiñak lez azaltzen jakuz gaur.

Euskerearen enborretikako adarrak lez dira euskalkiak; ta adarrak sano izango baditu, enbor sendoa ta osasuntsua bear dau. Euskera batuaren sendotasunak, obeto gordeko ditu euskalkiak be. Alkarri begira ipiñiaz.

Erri-izkuntzak dauken indar berezia, gorde bearrezkoa jaku. Bai orixe! Al dala, euskalki-adar bakotzak bere literatura apur bat bear dau, batasuneko literaturearen lenengo maillak irakatsiko dituana, gorago jo nai dauanarentzat bideak zabalduko dauzana. Baiña kulturadun euskaldun batek, euskeran zerbait kulturadun izango bada, bearrezkoa izango dau literarioa ezagutu bearra. Baita be, euskera literario ori izango da beste edozein euskalki obeto ezagutzera eltzen lagunduko dauan zubia; ta bide batez, erriak alkarrengandik geiago sakabanatzen lagako ez dauan lokarria.

Erri baten egintzarik nagusienetarik bat da literatura indartsu bategaz jabetzea. Izkuntzearentzako aberastasunezko bizibide barri bat da, kemena ta indarra emongo deutzazana. Ta gure txikitasunean, ain bearra doguna.

Batasunak, euskaldunok, anaiagoak egingo gaitu. Liburu, idazki, aldizkari ta abarren zabalkunde aundiagoa izango geunke.

Euskaltzaindiak, aurtan, bere urre ezteguak direala-ta, literatura euskerearen batasuna artu dau elburutzat, gaurkoz premiñazkoena iruditu jakolako. Baiña Euskaltzaindiak berak bakarrik eroan eziñezkoa da, alperrik izan alkarre orretan euskal idazlerik geienak. Orretara, gure guraria da, Euskaltzainditik aparte —naizta Euskaltzaindiari bere lan onetan laguntzeko izan— euskal idazle guztien batzarrik egin, estudiozko batzarrik, batasunaren gaiñean oraiñarte egin direan lanak estudia-tuaz, idazle bakotxaren eritxiak jasoteko eta —al dala— alkartasunera eroan al izateko. Bertako erabagien barri, «*Gerediaga*» alkar-teak Euskaltzaindiari emongo deutso, bere erabagietan aintzat artua izan dadin idazleen eritxia. Gero be, idazleak izango dabelako azkenengo berbea literatura euskerearen batasunaz.

Orain da ordua bakotzak bere eritxia emoteko. Orain ordua, alkarren eritxien barri jakiteko. «*Gerediaga*»k emoten deutse idazle guztieri aukera au.

Oarra: Ondorengo egunetan emongo doguz alkarriketen zuzendari izango direanen izenak, eta beste zenbait barri, erabiliko direan gaitaz.

«GEREDIAGA» ALKARTEA

● **HELDER CAMARA,
IRUGARREN MUNDU-
KO PROFETEA**

7 gn. orriald.

● **AUTOPISTETAKO
NESKAK**

9 gn. orriald.

ARANTZAZU

ZERUKO ARGIAREN txokotxuren baten iñoiz azaldu dot erri onetako gaztediaren egarri gorria. Batzoki bat gura izan dabe, ta jabetu dira beragaz. Domeka arratsaldeetan erriko andra elduak be batzartuten dira bertan eta benetan pozik jokatu be, iru-lau txakur mai gaiñean jarririk. Batzoki onetan euskal-erderazko liburutegia jarri gura dabe, eta ementxe dot euren tzat erositako Kirikiñoren ABARRAK. Beste iñok ete dauka besteren bat?

Batzartoki au zelan dagoan eta gaztedi urduri onen jokaerea ezagutugura biziagaz bertaratu nintzan maiatzaren 18'an, zapatu illunabarrean; eta a zan poz zirritadea artu nebana! Ogei bat neska-mutil egozan mai inguruan, buruak alkar joten, arreta andiagaz izketan eta entzuten, Modesto, Beasaindar apaizgaia, euskaldun jator eta txistulari trebea maiburuko zala. Eta mai gaiñean zer? Gure Modestok erandako ANAITASUNA pillo ederra, erritarren artean ezagutzera emoteko. Txaloga rriak benetan, Modestoren lan ongarri ta burutapen argia. Eta Puri Ipiñagaitik be, ezin gitxiagorik esan.

Neskatilla kiriotu au da ba, beronenak dauzan piper eta gatza alkarturik, sei ar pidedun egin dituana, eta geiago egiteko itxaropenez bizi dana. Egon ete zara, Puri, auzotarra dozun Simonegaz, osaba Eugeniogaz (dendako ate aurrean zeregin barik egoten dan uneetan, polito irakurriko leu ke onek), Olarrako andra-bildurrez urteetan aurrera doan M. Artetxe ta onen len gusuagaz, J. Zuazo, Justo Ibarra ta bes teen batzukaz? Zabaldu barriri be sareak, eta ea nire izenean be arrapetan dozun arraintxuren bat, Kele'k arrapetan dauzan lako andi ederrak.

Jontxu ta lagunak, eguna zabaldu zanean, kukua oraindik lo egoala, Mandoia rako bidea artu eben, emendik Begoñako Amarenganañño oiñez egiteko asmoz; beste batzuk Gorbeara bidean jarri ziran; eta ogezaleak, errizain gelditu zirean.

Aurrera ba, Arantzazu; eta aurrera, Puri. Euskaldunak itzartu eta euskerea indar tsutu arte, ez egon geldi.

A. LANDAJUELA

MENDEXA

Mendexan ba dira oso ederto abestuten daben gazteak, batezbe Iturraspetar anaiak eta Guenagatar anaiak.

Igokunde egunean, umeen lenengo gure Jauna artzea egon zan; eta egun orretan

ume oneen etxeetan aparteko bazkaria egiteko oiturea dago, etxeokak, senideak eta lagunak batuta.

Abeslari gazte oneek, bazkaldu ostean, etxerik etxe asi ziran euskal abestiak abestuten, zarrak poztu ta alaitu, eta gazteetan euskal zaletasuna zabalduaz.

Lenengo, Agarre baserrian asi ziran. An bizi da Guenagatarren amama zaarra, Petra Gabiola, bere 84 urtegez; eta egun orretan, an zan Lekeition bizi dan bere neba Joan be, 87 urtekoa, lobatxuaren lenengo Jauna artzeako eguna ospatuten etorrita: biak, euskalzale amorratuak. Abestu leutseezan, ba, makiñatxu bat abesti gozo; eta eurak ainbeste urtean entzun barik egozan euskal abestirik, eta lilluratuta negar egiten eben biak. Eta azkenean, eurak asi ziran aintxiñako kanta zarrak abestu eta kontu zarrak kontetan; gazteak be, pozik egon ziran eurai entzuten.

Gero andik Akarregi baserrira joan ziran gure abeslari gazteak; eta azkenean, Uskola baserrian naikoa abestuta, jentea pozik itxita etxeratu ziran.

ANAITASUNA aldizkari onen bidez, artu eizuez guztiok gure zorionik beronenak; baita lenengo gure Jauna artzea egin daben umeak eta euren gurasoak be; eta azkenik, Joan eta Petra nebarreba euskalzale jatorrai, euren beste lobatxuen lenengo gure Jauna artzeako egunak eltzen diranean, olakoxe egun alai ta pozgarriak igaro daiezala opa deutsegu.

TXAKARTEGITAR JOSE

ZURBARAN-BILBAO

Zurbaraneko Sakramentinoetan, igande ta jaietan, goizeko amarretan dogu euskal mezea, bigarren urte onetan.

Abestiak eta otoitzak danok batera egiteko, «multikopistearekin» gertatzen deuskuez orri batzuk; eta onan, mezatara joaten dan bakotzak bere papera dauko eskuetan.

Oso ederto irakurten dauz erriak «sarrera», «koru kanta», «eskeintza» eta «jaunartzerakoa»; eta abestiak, zer esanik be ez.

Beste eleizetako euskal mezetan, ez dakit erriak zelan parte artzen dauan ototzetan.

Gure eleiza onetan, mezak naiz erderaz naiz euskeraz izan, erri guztia dago olako orriakaz; eta gaiñera, gizonetakoak zuzentzen dabez meza geienak. Euskerazkoa arteztuteko, gizon bi doguz: bata jatorra, eta bestea euskaldun barria.

Onelan, edozeiñek zuzendu leike mezea, fraille edo abade izan bear barik; eta gaiñera, abadeak eurak asti geiago euki leikee, euren zeregiñak obeto betetako.

Zoritxarrez, gu, geienok beintzat, sasi euskaldunak gara. Au ezin leiteke ukatu. Orregaitik, nire ustez, gure ANAITASUNAK dei gartsu bat egin bear leuskioe abade euskalduneri: lenengo, gure orritxuen antzekoak egin eta zabaldu daiezala euskal mezetan: aukerea emon erriari, irakurten oituteko. Eta bigarren, meza zuzendari gizonetakoak izan daitezala. Aita Santuak, kaleko gizonaren laguntasuna eskatzen dau.

Gure eleiza onetako arduraduna, Aita Jose Antonio Labaka dogu; eta onek, nik baiño obeto, beste azalpenik bear izan ezkeru, pozik erantzungo leuke. Bere urrutizkiña: 21 43 93.

Nik neuk, ozta ozta idazlea izanik, ANAITASUNAREN pentzutari ipinten do daz azalpen oneek.

X. X.

E I B A R

Eibarko parrokia guztiak eraturako sozial kursilloa, guztiz interesgarria izan da. Gaia, **Gizonaren Eskubideak**. Ain zuzen be, aurten ospatuten dogu Gizonaren Eskubideen Autorkizunaren ogeigarren urteurrena. Astean astean, barikuetan, gizonaren eskubide bat azaldu da. Zazpi zerbaldi, guztitara. Ona emen programea:

Giza eskubideen autorkizunaren historia ta gaurkotasuna.

Personea ta askatasuna.

Alkartzeko eskubidea.

Sozio-ekonomiari buruzko eskubideak.

Politikan parte artu ta erri-eritxia agertzeko eskubidea.

Minorien edo enda txikien eskubideak.

Gizonaren eskubideak lortzeko bideak.

Maiatzaren 26'an umeen euskal jaiak ospatu zan.

Bezperan, zapatu gauez, Astelena pelotatokian jaialdi eder batek emon eutson asikerea. San Antongo orfeoiak, Benito Lertxundik, Estitxuk eta Idoia Garmendiak, euskal musika jardunaldi atsegingarri bat eskiñi euskuen. Gaur gaurko abestiak, eta euskeraz. Jente asko.

Ta domekan, Eibarren batu ziran bertako ta inguruetako umeak. Txistulari ta dantza taldeak be, ugari. Euskal giroa alderdi guztietatik. Baiña ainbat umeri itaundu neutsen: **Euskeraz ba dakizu?** Ta erantzuna: **No sé.**

Gure errietako euskal jaiak ez ete dauke zerbait geiago, sakonago, euskal jantzi orreek baiño?

BILBOKO IKASTETXE BATEK,
euskeraz dakian **IRAKASLE BAT**
bear dau, **Batxilleratoko lenengo**
urteetarako.
Argitasunak: Tel. 21 86 46.

ARRATE

Urtero lez egin zan Arraten, Peli Alda-zabal zanaren oroiz, Eibarko «Esparrua»k eraturako umeen euskal sariketea. Aurtengo au, seigarren aldiz, bagillaren 2'an izan zan. Mailla bitan egin zan: zazpi urterartekoak eta amalaurartekoak, euskeraz irakurri eta idatzi nok obeto egin.

Nagusien maillan (14 urterartekoak) 49 neska-mutikok artu eben parte. Iru falta baiño gutxiagogaz gelditu ziranak, zortzi izan ziran, era onetan klasifikaturik:

1. Erramon Agirre, donostiarra, 13 urte.
2. Odile Kruzeta, eibartarra, 10 urte.
3. Gorka Setien, 10 urte.
4. Jose Alberto Gorosabel, 9 urte.
5. Jon Gotzon Arrese, 14 urte.
6. Gema Jayo, 8 urte.
7. Maria Pilar Beristain, 8 urte.
8. Margarita Castrillo, 8 urte.

Gaiñerako guztiak, iru faltatik gorakoak, mailla bardiñean ipintzen dira.

Txikitxoan maillakoetan (7 urterartekoak) 61 neska-mutikotxok parte artu eben. Egitatea errezago batean, ondorengo amalaurak gelditu ziran aurrerengo:

1. Lorea Iriondo, 7 urtekoa. (Nungoa zanik ez eben ipiñi, baiña elgoibartarra ei da).
2. Yone Miren Larrañaga, debarra, 7 urte.
3. Miguel Angel Ruiz, 7 urte.
4. Kauldi Arostegi, 7 urte.
5. Milagros Aristi.
6. Iñaki Odriozola, 6 urte.
7. Imanol Bergara, 7 urte.
8. Juan Ulazia, 7 urte.
9. Iñaki Arrizabalaga, 6 urte.
10. Alfredo Albizu, 6 urte.
11. Begoña Aizpurua, 6 urte.
12. Maria Lurdes Peñalba, 6 urte.
13. Eskarne Fuldain, 6 urte.
14. Miren Itziar Arrieta, 7 urte.

Gaiñerako guztiak, lau faltatik gorakoak, klasifikaziño bardiñean lagatzen dira.

Sariak banatzea bagillaren 21'ean izango da Eibarko «Teatro Amaya'n», egun orretan gabeko amar t'erdietan egingo dan jaialdi batean.

Nagusien maillakoetan lenengoari: 3.000 peseta, txapela ta kopea (Eibarko Udaletxearen kopea). Bigarrenari, 2.000 peseta. Lenengo eibartarrari, Salaberriaren kopea.

Txikitxoetan lenengoari: 2.000 peseta, txapela ta Eibarko Udaletxearen kopea. Bigarrenari, 1.000 peseta. Gaiñerako guztientzat, Arraten bertan zabaldu ziran euskal liburak.

SARA

Lapurdiko erri zoragarri onetan, bertsolari txapelketa aparteko bat izan genduan, maiatzaren 19'an.

Goizeko amaiketean, meza nagusia. A bai erri-meza ederra, bertsolari ta guzti. Neska-mutil koskorak aurrean, erriko alkatea, parroko jauna gidari, erritar gizon mardulak inguruan, emakumeak... eta danen aurrean gure bertsolariak. Eurak egin eben meza-eskeintzea bertsoan. Eurak, epistola edo irakurgaia. Eurak, «mementoa» eta ia dan dana. Bai entzuleak pozik egon be. Arrituta egozan, ikusi ta entzuten ebenagaz. Baiña bai eurak, saratarak be ondo eta sendo abestu. Parroko jauna arro izango da nunbait alako eleiztarrakaz. Onezker joango jakon barruko kezka ta bildurra, alako meza harrirako baimena emon ebalako. Geu be malkoai eutsi eziñik gengozan, gure ondoan ain erri euskalduna ikustean.

Azkena emon geuntsanean, udal-txe edo aiuntamenturakoa aezindu euskuen. Eta ara jo genduan. Ain zuzen be, saratar bik museko txapelketea atara eben. Ardaotxua eta alkatearen itzaldi zoragarria. Paul jaunak, gozaro erabilten dau euskerrea. Gizon argia, eta bere erria esku ezkerzagaz erabilten dakiana. A itzaren jario gozoa, eta axe gizonaren gizarte mamiña!

Andik, Trinkete jantokira. Bazkal-tzera. Oparo emon euskuen; eta barriketa zaratatsuak azaltzean..., oi dan lez, amaitzeko, bertso saltsea. Sarako gazte jatorrak lenengo: benetako bertsolariak, alaiak, gogotsuak. Gero, beste edonok. Egon nintzan garai baten, bertsoak bertan euren emongo ebelakoan. Baiña ez. Gerorako be geratu jaken zertxubait.

Eta gero, pelotatokira, txapelketa berezira.

Hernandorena jaunak esan euskuen —eta berak gertatu eta zuzendu dau jaialdi eder au— Bizkaia ta Lapurdiko berbetearen artuemonen asiera edo sorkundea da gaurko au, urrengoan Bizkaian egiteko asmotan.

Ara Hernandorena jaunak eraturako txapelketearen azalpen batzuk:

Lau bertsolari, bikote biñan: Bizkaia, Lopategi-Azpillaga; Lapurdi, Xalbador-Mattin.

Bikote bien puntuak zenbatu, eta nok-geiagokoa ikusi. Saria, kopa

eder bat. Baiña ez otsera irabaztekoa. Bitan irabazi bear da. Gaur emen eta gero Bizkaian datorren urtean, ikusi egin bear da ze alde da goan bertsolari bikote bien artean. Parisen be ekitaldi bat egitekoak ziran; baiña ezin aurtengoz.

Orrez gaiñera, urrezko moneda bi be ba ziran saritzat. Bata, gai bati buruz, iru bertso on eta gorenengoentzat. Eta, arratsalde osoan, neurrik gailenenekoan esandako bertso saillari, bestea.

Xalbador eta Lopategirentzat izan ziran. Izan be, aipatzekoak izan ziran Xalbadorren iru bertsoak, erbestean bizi dan baten errimiña azaltzeko esandakoak. Alan be, gain gaiñean eban Lopategi, adi, akats txikiñen batek urten ez eion.

Ez baiña. Laurak ondo eta sakon, giartsu eta burutsu azaldu jakuzan. Lopategi ziur, egun osoaren buruan. Eta maikoak? Epaille edo juezak? Axe bai, benetasun eta zintzotasunari lotsea eta lotzea! Epaiketa jatorra eta gaurrarte ikusi ez dan lakoa. Bederatzi epaille, iru maietan banandurik, Bizkaia, Gipuzkoa ta Lapurdiren ordezkari. Irukote bakotxa bere lanari esituta, era onetan: Bertso puntu ta jostekera ikusteko: Itzaina (L), Bordari (G), Arregi (B). Mintzaira edo euskerea: Larre (L), Aranalde (G), Azpiri (B). Gaia: Lafitte (L), Ayalde (G), Arantzamendi (B).

Lenengo mai bietakoak, amarna puntu emon eikioezan, gitxienez, bakotxari bertsoa. Eta irugarrenekoak, gaia zaintzen ebenak, amabost. «Xistema barria» jarri izan da oraingoan; eta, diñoenez, zuzentasuna agiriago gelditzen ei da onela. Utsak uts, pozik urten ei eben dan danak.

Ona emen azalgarri batzuk. Urrezko monedearentzako puntuak:

Xalbadorrek 280,50
Lopategik 279
Azpillagak 228,50
Mattinek 228,50

Azkeneko biok, bertso entzungarriak esanarren, gaitik kanpora urtenda ibilli ziran, apur bat.

Eguneko jardunean:
Lopategik 1.294
Xalbadorrek 1.289
Mattinek 1.235
Azpillagak 1.189

Azpillagak ez eban bere egun eguna izan, ondotxu egonarren be.

Ea ba, datorren urtean Bizkaian ikusi al izaten doguzan. Biotzez eskertuko geunke Hernandorena jaunna. Agur!

ARANTZAMENDI

“GIZADIAREN HISTORIA”

Agiri barria da Frantziako liburutegietan, «L'Histoire de l'Humanité». Liburu oso interesgarria. Bere egillea, UNESCO, Edukaziño, Jakintza ta Zientziarako Organizaziñoa, Naziño Alkartuen menpean diarduana.

«Paris-Match», Frantziako astekari ospetsuak emoten deusku liburu onen barri.

Idea Londresen sortu zan, guda denporako bonbardamentuetan; eta 1946'garrenean UNESCO sortu zanean, organismo onek artu eban bere eskuetan asmoa. Egia esateko, olako organizaziño batek bakarrrik egin eikean ondo eginkizun astun au. Munduko naziño guztiak ornidutako gaiak batu; historilariak, artistak, teologuak, arkeologuak, lurralde danetariko jakituen informaziñoa pillotu, erkatu ta atondu: ikaragarritzko lana.

Naziño arteko komisiño bat eratu zan, gizadiaren kulturea eta zientziaren asikera ta zabalkundea gizaldietan zear estudiatzeko. Bearbearrekoa zan, historia au bere alderdi unibersaletik ikustea, orainarte agertu diran historia liburueri jaramon andirik egin barik, oneek beti aberrikoikeriaz egiñak izaten baitira. Orrez gaiñera, liburu barri onek erakutsi bear eban, historiako gorabeerak, gudaldiak, erregeen egitadak eta esakuntzak, eta erregeñen abaniku erabilketak baiño garrantzi guztiz aundiagoa daukela gizonaren aurrerapide ta deskubrimentu andiak eta txikiak. Alkarreganatu erri bakotzak bere aldian eta bere lur zatian historia-rako ipiñi dituan arriak: orixe zan lanaren asmoa.

Historiaren unada edo atal berezi bako-txa, munduko jakitun garaienen ardura-

pean ipiñi zan. Inglesak euki dabe Pre-historia, Italiarrak Aintxiñatea, Frantse-sak Erdi Aroa, Amerikanoak «Argi Mendea», eta abar. Egindako idazlan guztiak, UNESCOn parte diran naziño guztietara bialdu ziran. Eta ementxe dago liburuaren berezitasuna. Naziño bakotzeko espezialistak euren aburua agertzen dabe gai guztietaz eta idazleen eritxiak diskutidu. Ortik sortutako ojeziñoak eta eztabaidak, liburuko artikuluen ertzean agertzen dira. Irakurlea gelditzen da epaille. Esate batarako, «erriak euren buru izateko eskubi-dea» azaltzen dauan artikuluen ertzean,

sovietar historilari batek diskutietan dau amerikanoaren eritxia. Eta esan be bai, Wilson Presidenteari Lenin aurreratu jakola.

Liburu aundi au amaituteko, amabost urteko lana bear izan da. Gaur egunean, ingles, greko, esloveno ta servo-kroatian be argitaratu da. Laster izango da, beste izkuntza askotan be.

«Gizadiaren Historia» onek ba dauko anbiziño bat: irakatsi gizoneri, euren «len» aren alkartasuna daukela, eta orrexegaitik euren «gero»arena be bai.

ARTZA

Irakurleen eritxiak

Euskerea ta euskalkiak

Ez dago zetan esanik, euskaldun guztiok, euskalki edo dialektuen orde, euskera bakar bat bagendu, gauza guztiz onurakorra izango litzakela. Ba al dago iñor, batasun au gura ez dauanik? Ez dot uste, zentzunduna izanezkero. Zelan erabagi au artu? Zeintzuk bideak erabilli? Zein euskalki oiñarrizat artu? Erriak onartuko ete dau? Bat batean edo epetan egiteko lana al da?

Ona emen bakotzak egin bear dituan itaunak. Nok marapillo au askatu? Euskaltzaindiak, idazleak ala erriak? Irurak batera? Ez da erreza, auzi au ebaztea.

Aurten, Euskaltzaindiaren berrogetamar urtebetetzea ospatuten dogu. Au dala-ta, Oñatiko Ikastetxe Nagusian, batzar aundi bat izango dogu, euskerearen batasunari buruz. Zegaitik ez zabaldu, euskaltzale guztien artean, orri batzuk, itaunka, arazo oneri zer deritxoen? Onetara, danon eritxiak izango gendukez; eta erantzun guztiak ikusirik, erabagi egikor bat artu al izango litzake.

Ni, iñok eskatu barik, ene eritxia apalkiro azaltzera noatzue, euskerearen onerako dalakoan. Irakurri, arren, gogo onez.

Bizitzara etorri giñanean, amaren eta etxeko izkerea ikasi genduan, leenengo. Gero, kalera urtenda, kaleko izkuntzea erabilli genduan. Eta urren, ikastearen bidez, leendik ikasitako berbetea orraztu, osotu ta aberastuten saiatu giñan.

Euskerearen batasunaz be, beste orrenbeste jazoko dala uste dot.

Erriko euskerea, amagandik eta

etxean ikasitakoaren antzekoa dogu. Euskalki berbetea ta txikitian kalean erabilli genduana, batera doaz. Eta azkenez, euskaldun batzuk, ikastearen bidez, orraztu, osotu ta aberastu egiten dogu dakigun euskerea, euskera batu bat lortzeko.

Auxe da, berez jatorkun bidea. Egun bateko bidea ez dala? Jakiña. Leengo biak jakin bear dirala, irugarren maillea lortuteko? Bai orixe.

Zein da Euskaltzaindiaren arloa? Euskalkien bardintasunak onartu, eta ezbardintasunak beste dialektuetan jarri.

Zein da idazleen zeregiña? Norberaren euskalkian idatzi, tindika tindika besteenak geituaz, euskera osoa lortu arte.

Zein da erriaren lana? Euskaltzaindiaren eta idazleen esanak betetu ta ontzat artu.

Urteak bear dirala orretarako? Jakiña. Menderik mende darabilguzan euskalkiak ezin dira egun baten baztertu. Gaiñera, iñoren euskalkia gitxietsi barik, euskera osoa eskuratuko genduke, iñorena zapaldu baga.

Zer deritxazue? Bide obarik bada, agertu bedi. Baiña kontuz, ez gaitezan etxea egiten teillatutik asi; bestela, guztia juasiko da-ta.

Geigarria. Xabier Gereñok ez dau euskera garbia onartuten. Zegaitik ez, garbia, erreza ta gozoa izanezkero? Garbitasunak, bere erak ditu: ulerterreza, joskera berebizikoa ta jakingarrria.

Mundakar bat

«ERRIEN AURRERAKUNTZA»

“Populorum Progressio”

Dokumentu ain garrantzitsua euskeraz irakurri gura dabenak, Bilbaoko liburutegi oneetan erosi leikee 10 pesetan:

Librería Balmes,
José F. Lequerica, 5

Librería Bilbaína,
Plaza de los Mártires, 2

Librería Ercilla,
Ercilla, 29

Librería Izarra,
Gregorio de la Revilla, 23

Librería Verdes-Achirica,
Correo, 7

BERTSOLARIEN TXAPELKETA NAGUSIA

BERTSOLARIEN JOKABIDE BARRIA



Bearbearrekoa da, Txapelketa Nagusi baten bertsolarien larritasuna al danik geien arindutea.

Izan be, ez dogu bertsolari bakar bat aurkituko, txapelketearen aurretik larri sentietan ez danik. Eta gure ustez, Basarri bera be txapelketatik urrundu bada, larritasun orrek dauko errurik aundiena.

Ez da arritzekoa. Zenbat eta goragoko maillan egon, larritasun geiago eukiten dau bertsolariak. Eta danok dakigu, larritasun orrek gizonaren aalax auldu ta gixitu egiten dituana.

ZELAN ARINDU BERTSOLARIEN LARRITASUNA

Gure eritxiz, bide bat bakarrik dago: Goizeko ekitaldia kendu, eta lagunarteko bazkari baten ostean jokatu.

Bazkal denporan bertsolariak alkarre-gaz jarduten dabe, euren gogo-biotzak astinduten eta txurrut egiten. Orduxean dagoz prest eta sasoiari, bertsotan asteko.

Bardin bardin da: Pelotariak, eskuak berotzen dabez, partidua asi orduko. Bertsolariak, bazkal denporan emoten dituen bertsoskak berotzen dira eta entrenatzen, gero txapelketara agertzeko.

Eguzkia maite dauan landara batek, ez dau lora politik emongo itzaltegi baten. Eta goizeko kafe utsa edo ardao zuri erdia, leku illuna da bertsolariantzat.

Txapelketea, beraz, bazkari eder baten ostean jokatu bear litzake.

GAIETAKO SUERTE ONAK EDO TXARRAK EZ DAIALA JOKATU

Txapelketea ez da jokatu bear, bertsolariak euki leiken suerte onaren edo txarraren zalantzeagaz.

Bertsolari bakotxaren nortasuna, bata besteagandik guztiz desbardiña da.

Batzuk, zirtolariak dira; besteak, gai serioak, sakonak eta sentikorak maite ditue.

Konparaziñoz: Atzelari dan pelotari bateri jokia aurreko txokoan egin ezker, pelotari ori txarto ibilliko da. Bardin bertsolaria. Gai irrikorak maite dituana, ez da ondo ibilliko gai serio ta sakonakaz.

Gaiñera, biñaka ipinten doguzanean—gaita irrikor edo serioa izan— alde aundia dago bakotxari emoten jakon gai edo ofizioan.

Ejenplu bat. Gipuzkoako txapelketa baten ostean galdetu eutsoen Gorrotxategi bertsolariari: «Gaurko saioketan suerte ona ala txarra izan dezu?» Eta berak erantzun: «Oso makurra (txarra). Gaita oso zailla (gatxa) nuan. Gaiñera, gaur egun zekenak (aldarte txarrak) galdu nau. Ortan gorabeera aundiak izaten ditut».

Eta Garmendia txapeldunak barriz, zera erantzun eban: «Egun zori egundokoa (sekulakoa) eta sasoi izandu ditut».

Eta guk galdetzen dogu: Gaiak aldatuaz, ez al zan txapela buruz aldatuko?

Orregaitik, suerte onak edo txarrak ez leuke jokatu bear txapelketa baten.

EGUNEKO ALDARTEAK EZ DAU ERABAGI BEAR TXAPELKETEA

Bertsolariari entzuteko oitorea daukon edozeiñek daki, ez direala egun guztiak bardiñak izaten. Euren aldiak eukiten dabez bertsolariak. Pelotari batek eukiten dauan eran: egun baten ondo, urrengoan ez ain ederto.

Eta gogaldi txar ori edozein bertsolari gerta leitekio txapelketa baten. Eta orduan jazo leiteke, goigoiko maillako bat atzean gelditzea, eta azken maillakoa aurrean geratzea.

Olakoren bat jazo ez daiten, bi edo iru saioketatan jokatu bear litzake txapelketea; eta txapeldun izango da, saioketa orreetan puntu geien irabazten dauan bertsolaria.

Txapelketea era onetan jokatzen bada, bertsolariak nasaia etorriko dira, eta merezi dauan bat izango da txapeldun.

HERNANDORENA

EUSKERAZALEAK

Euskera erabilte aldoko Alkartasuna

"UMEEI EUSKERA IRAKASTEKO METODU" onenari 50.000 pesetako saria BIZKAI-ERASKETXEAK emona

1. Irakurten jakin arren, gramatika arloan makal dagozan *euskera ez dakien* umeei euskera irakasteko egokia izan bearko dau metodu orrek. Umeen adina, 6 - 10 urte.
2. Metodu ori, mamirnez, begi-ikustez ikastekoa izango da, gramatika azalpenik bagea, dibuju errez, soillez ta kolore bakarrez egifikio irudi ugari dauana. Egilleak dibuju orreik egiteko esku ta aukerarik ez baldin baleu, lauko bakotxari dagokion gaita iragarri begi.
Dibujuen edertasuna berenez ez da alntzat artuko sari-maillarako, ba *«Euskerazaleak»*, bai textua ta bai irudiak zuzentzeko edo obatuteko eskubidedun dalako.
3. Irakaskera onetako iztegia ta esanaldiak, adin orreetako umeak euren artuemonetan oi dituen esakera ta esanaldiak izan bearko dabe.
4. Iztegi orretako berbak 700 baiño geiago ez bearko, ta guztiak, esan dogun lez, umeak oi dituen artuonak. Izkeran, ez garbikeririk ez mordoi-llokeririk, bai bion arteko; ta bizkai-euskalki literarioz egia.
5. Metodu orren neurria, tipografi taiu 12-koaz, laugarren tamafuan 80-tik 100 orrialdeko liburuak egiteko aifakoa.
6. Barri-barría izatea ez da premiñazko; leen direan metoduak egokitu leitekez, euskerazkoak ala beste izkuntzetakoak; baiña gorago izentau direan zerzeladak bete bearko ditue, ta premiñarik baltz, argitaltzeko baimena izan be bai.
7. Metodu-gaiok, izenordepean baldi bearko —ize-
- na ta abar estalki itxian— zertifikaduz, ta artze-erantzupenaz, aurtengo Urriaren 1-goia baiño leen, toki onetara: *«Euskerazaleak»*, Vda. de Epalza, 12, 2.º, Bibao-5.
8. Batzaldiko epailleak: *«Euskerazaleak»*-en ordezkari bat, Euskaltzaindikoa; *Bizkai-Erasketzearen* ordezkari bat eta iru ume-irakasle euskaldun, adin orreetako umeei irakasten jardun izan dabena ain zuzen be.
9. Epaimalak beranduen, Urriaren 15-garreneako emongo dau epaia, ta aurretiaz adierazoko dan eginkizunean agertu be, ta jarrailan Biboko egunkarietan.
10. Saria itsu itzi leiteke; ta orduan, urrengo bateko batzaldi bardin edo antzerakoan eskifiko da.
11. Pozgarri izan dakien, meritu nalkoa daben lanen egilleei 5.000 pesetako sari banaak eskifiri al izango deutsez Epaimalak.
12. Metodu sarituaren textuaren jabe *«Euskerazaleak»* geratuko da, ta *Bizkai-Erasketzeari* argitaltzeko baimena emongo deutso, onek baderitza ta gura dauan gifoan; *«Euskerazaleak»* berenez egin legizan argitalpenak eragotzteke.
13. Lan sarituaren egilleak, argitalpen guztien gain izango ditu bere egille-eskubideak; duban emoteko egifikio argitalpenen gain izan ezik.
14. Saritubako lanak egilleei biurtuko jakez, *«Euskerazaleak»* alkartasunaz egiune berezia lotu ezik.

Bilbon, 1968 maiatzean

Erreboluziñoa ta Camilo Torres

Argentinatik urten egin dabe Espainiko abade batzuk.

Batzuk esan dabenez, andik kanpora bota ei ditue. Beste batzuk diñoenez, Argentina itxi dalela eskatu ei jake. Abadeak eurak, ez ei ebela an apaiz lanean jarraitu gura: au be esan da.

Euren itzaldiak eta sermolak nastatzailleak, erreboluzionarioak ei ziran. Zurrumuru orreetan, Camilo Torres be aitatzen da. «Camilo Torres» talde asko ei dagoz Latiñamerikako naziño batzuetan.

Oraintsuko barri oneen oiñarria ez baita aln segurua, jazokera oneen gaiñean ezin leiteke aurretik emon eritxi on bat. Auxe esan leiteke ziur: Latiñamerikako kristiñau talde batzuk, obispoak be tartean direala, erreboluziño berbea gero ta erreza go onartzen dabela.

Baiña zer esan gura dau erreboluziñoak? Zelan ulertu bear da berba au? Zelan ulertzen eban Camilo Torresek, Colombiako abadeak? Bere pentsakereak eta ejenpluak bizitasun andia emon deutso kristiñauen kontzientzia barri oneri.

Bere ustez, geienen eskubideak urten bear leukee nagusi. Geien direanak, naziñoako maioria egiten dabenak egon bear leukee aginduten. «Geienak geu bagara eta demokrazian siñisten badogu, geuk euki bear geunke aginpidea, geienak osotzen dogun talde onen alde gizarteko aldaketak egiteko. Onexeri deitzen deusatik erreboluziñoa; eta au lagunurkoa maitatzeko bearrezkoa bada, kristiñauak erreboluziñozale izan bear dau».

Demokrata batentzat, minoria baten aginpidea erriaren eskubideen kontra doa, maioriaren gurari ta bearrizanen aurka doa.

Lagunurkoa maitatu bear bada, zelan onartu leitekez ainbeste injustizia sozial sortu eragiten daben egiturak, estrukturak?

Kasu onetan, estructures barrien alde egon bear da. Erreboluziñoa, olan ulertu ezkerok, ona dala uste dogu, kristiñau kontzientzia barri bat formatzeko.

Izan be, gaurko gizarteko injustiziak kondenatu egin bear dira. Ezin geintez erreforma txikiak konformatu. Zentzun onetan, Camilo Torresen jokabidea ona da. Kristiñauak, lagunurkoa maitatzeko agindua dauko; baiña agindu ori, politikan be bete bear da. Camilo Torres onetan, profeta bat izan da.

Baiña ba dago beste puntu bat, aaztu ezin geinkena. Camilo Torresek nai eban erreboluziñoa egiteko, edozein bide ona

ete da? Camilo Torres, bere politika bizitza laburrean, ez zan agertu biolentziaren aldeko. Ona emen zer esaten eban puntu onetan: «Biolentziari buruz geure eritxia agertu bear badogu, argi ta garbi auxe esan bear dogu: Ez dogu nai biolentziarik, ez dogu nai indarrezko biderik; aginpidea gura dogu maioriarentzat».

Illabete batzuk geroago, Colombiako Erriaren Frente Alkartuan indar geienak organizatzeko bere alegin guztiak alperrekoak zirala ikusirik, Camilo Torresek, iñok uste barik, gerrilleroen artean sartzea erabagi eban. Denpora gitxi barru il zan, ejerzituko soldaduen balak jota. Camilo Torres jakiñaren gaiñean joan zan mendira, gerrilleroen artera; prest egoan bera, kristiñauatza eukan erreboluziñoagaitik ilteko. Bere bizia emoteko prest egoan, baiña iñor ilteko gerturik ete egoan?

Bere bizitzan zear begitu, ta bere idazkiak aztertu ostean, ori beste gauza bat dala esan leiteke. Camilo Torres, bene-

tako kristiñaua zan. Barru barruan sartuta eukan «ez dagoala maitasun andia-gorik, lagunakaitik bizia emoten daunarena baiña».

Arerioa, kontrarioa il bear dala konbentziduta egoala esatea beste gauza bat da. Orregaitik, Camilo Torres il ez balebe, izango ete zan gudari on bat, itz onen zentzun osoan? Iñor ilteko kapaz izango ete zan?

Agertuko ete dira bere antzeko kristiñauak?

Camilo Torresen jokabideak argi asko egin leiskio kristiñau biotz zabal askori, justiziaren aldeko erreboluziñoan gaur ze medio erabili leitekezan ikusten.

Kasu konkretu baten erreboluziñoa bearrezkoa dala konbentziduta dagozan kristiñau askorentzat, Camilo Torres ikasbide argia izango da.

(EL CIERVO aldizkaritik artua)

Frantzian

IKASLE PROGRESISTAK

Frantziako ikasle progresistak, langille ta ikasleeri Unibersidade barri baten oiñarriak eskeintzen deutseez. Unibersidadea, erriak zuzendu daijala ta erriaren serbitzurako izan daitela.

Ona emen programea:

- Irakaskintzeak adimen lana ta esku lana alkar lotu bear dauz. Ikasleak, urtean zear, illabete batzuk lan-tegi ta baserrietan bearrean igaroko ditue. Olan, euren bizitza aberastuko dabe ta, beste gizonakaz alkartuta, gizar-tearen alde jokatuko.

- Unibersidadeak ateak zabalik eukiko dauz, euren ikastaldiak jarraitzeko asmoa daben langilleentzat. Erri osoak euki bear dau sarrera Unibersidadean.

- Goi maillako irakaskintzan, langilleen semeak eunetik berrogetamar baiña geiago izango dira.

- Goi maillako irakasle ta euren laguntzailleak, denpora zati baten, langilleeri euren ikastaldiak aurrera eroten lagunduko deutseez, ta batezbera nekazarien alfabetatze lanean parte artuko dabe.

- Irakaskintzako gai asko arindu, ta bearrezkoak ez diranak kendu egin-go dira. Esamiñak be, beste era batera izango dira.

Programa au aurrera eroateko, ikasle progresisten, langilleen eta baserriar pobreen alkartasuna bear bearrezkoa da.

HELDER CAMARA

IRUGARREN MUNDUKO PROFETEA

- «TXABOLETAKO OBISPOA» TA «OBISPO GORRIA» DEITUTEN DEUTSOE
- ERRESPETU AUNDIA DEUTSE CHE GUEVARA, CAMILO TORRES ETA MARTIN LUTHER KING'ERI
- GAURKO MUNDUAK ERREBOLUZIÑO BATEN BEARRIZANA EI DAUKO
- INDARREZKO BIDEAK EZ DITU GURA EZELAN BE

Zorionez, Eleizako agintariak gero ta ardua geiago artzen asi dira munduko proletetan. Olako gizonen artean, Hélder Cámara dogu ospetsuenetarikoa. Brasileko artzobispoa da, eta ango errialde pobre baten bizi da. Entzute aundia dauko mundu guztian; eta Erromako periodisten artean zurrumurrua zabaldu da, laster Kardinal izan leitekela. Brasilen bertan, «txaboletako obispoa» eta «obispo gorria» deituten deutsoe batzuek.

Oraintsu, Europatik zear osterata egin dau. Parisen, Berlinen, Estrasburgon, Liejan egon da. Erroman be bai, eta Aita Santuagaz izketaldi bat euki dau. Geienetan, biolentzia ta burruka sozialari buruz mintzatu da.

«Ez nago biolentziaren alde —esan dau. Errespetu aundia deutset Che Guevara, Camilo Torres eta Martin Luther King'eri. Baiña ez naiz biolentziaren aldeko, sarri askotan indarrezko bideetarako tentaziñoa neure barruan sentiduarren.»

Berrogetameretzi urte ditu. Aspalditik diardu gizarteko justiziaren alde jokatzeko, eta



jokabide orrek arerio asko ekarri deutsoz Brasilen. Orregaitik esan dau, orain asko ez dala, ez litzakela bapere arrituko, edozein kale bazterretan garbituko balebe.

«Beti egon da biolentzia munduan — esan dau artzobispoak. Baiña gaurko beste zabaldua ez da sekula egon. Edonon aurkitzen dogu biolentzia gaur egunean: kaleetan, lan-tegietan, ikastetxeetan, basoan, mendian, agirian, ixillean, goikoen aldetik, bekoen aldetik, nonnai.

»Gauza erreza da, beste barik biolentzia kondenatzea. Gauza erreza da, edozein gogortasun klase txartzat emotea, gogortasun ori zelakoa dan eta zegaitik sortu dan jakin barik. Gauza erreza da, biolentziaren kontra naiz alde berba egitea, norbera burruka tokitik urrun dagoanean. Baiña ez da ain erreza, burrukaldi ori geure aurrean ikusten dogunean. Ez da ain erreza, gure arteko gizonik zintzoenak eta kapazenenak biolentzia bidea artzeko tentaziñoa sentietan dabela edo bide orretatik joan direala ikusten dogunean.

»Nik esan gura dodana, auxe da: Gaur eguneko estrukturak erreboluziño baten premiña dauke. Naziño pobreetako gizonak, premiña au guztiz argi ikusten dabe. Munduko abitanteen artean euneko 85 kale gorrian bizi dira, beste enparaduak (euneko 15) esne mamifietan bizi direan bitartean. Eta txarrena dana: gizon menperatu orreek, euren eskubideak zaintzeko, sindikatu ta kooperatibetan alkartzen badira, laster jatorke euren zuzendarieri zigorra ta kartzelea, komunistak eta gizarteko soseguren arerioak direala-ta.

»Gaur eguneko lege askok ez dabe aintzat artzen gizonaren —batez bere pobreen— diñidadea; eta era ederra emoten deutsee goikoeri, bekoen kontra biolentzia egiteko. Beste lege batzuk barriz, guztiz onak izanarren —esate baterako, ONUko lege fundamentalak— letra utsa bakarrik dira, naziño geienetan betetan ez dira-ta.

»Ba dago biolentzia, baita naziño aurrertuetan bere. Naziño kapitalistak zein komunistak, bardin antzekoak dira puntu onetan. Milloikada gizonak bildurra deutsoe bakeari, guduaren eta eriotzearen lepotik bizi dira-ta. «Trust» asko dagoz munduan, Estaduak eurak baiño indartsuagoak direanak; eta «trust» orreek euren arerieren bat garbituten badabe,

ez dago modurik, iltzaillea nor izan dan jakiteko.

»Itxi eidazue orain, Eleizako obispo naitzan aldetik berba egiten, neure jokabidea burruka onetan bildur barik agertu deizuedan. Errespetu aundia deutset, euren kontzientziari jarraiturik, biolentzia aldera jo daben guztieri. Salatu egiten dodaz osterata, biolentzia orren benetako eragilleak, euren egoismuagaitik justizia zapaldu eta bakea galerazoten dabenak. Baiña nik neuk, Paulo VI garrenaren antzera, naiago dot bakea, biolentzia baiño. Bete betean autatzen dot biolentziarik eza; etsi etsian aukeratzen dot, Ebanjelioak irakasten deuskun alkar maitasuna. Eta bide au artu dot, gizonagan fedea daukodalako eta progresua bakearen bidez etorri leitekela siñisten dodalako.»

Aolan berba egin dau, biolentziarik ezaren apostolu aundi onek, «irugarren munduko profeta» onek, pobreen aldeko burrukan guztiz engaiatuta dagoan Eleiza katolikuko obispo aundi onek.

FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan

MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale
Zerra — Uraga
Uraska

Europako aurrerapenik onenak
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114).

Fabian Ormaetxe Abeslaria



FABIAN ORMAETXE

Mungi inguruan, ha da erri onen auzo polit bat. Ospetsu egin jaku, bertan gertatu diranakaitik. Igarri dozue onezkero, Larrauri esan gura dodala.

Erri onetan daukogu euskaldunok, eza gutzea merezi dauan gizon bat. Abeslaria.

Euskal Erriak beti emon izan dauz abeslari onak, taldeka naiz bakarka abestuteko.

Agertu gura dodan gizona Italian, Milanen aurkitzen da gaur, eta buruaustea naikoa izango dau.

Asko ez dala, Larraurin aurkitzen zan, amaren ondoan, bere etxean. Alkar izketa luze baten, antxe emonak dira emen dakartsuedazan barri oneik. Zuentzat dira.

—Non jalo ziñan, Fablan?

—Nire gurasoak, Meñakan bizi ziran len; an jaio nintzan. An bota neban umezaroa.

—Abestuten noiz asi?

—Amabi urte inguru nebazan, Meñako eleizan abestuten asi nintzanean. Pozik andienaz abestuten neban antxe.

—Gerbago?

—Amarortzi urte inguru nebazan, Bilboratu nintzanean «Danubio» tabernan izan neban bearlekua, ainbat urtean. Orduntxe, edari etxe atan kantetan nengoala, gizon batek entzun, eta Bilboko Korallera eroan ninduan. Emeretzi urte nebazan. Ori, orain amar urte.

—An zelan?

—Asikeratan ondo ez. Gure eztarria ez da egoten ondo ezita; indarra-ta ba nekuzan, baiña ezi egin bear. Abeslari talde orretan sartuta urte bete t'erdi geroago,

bakarreko zatiak-eta neuk egiten asi nintzan.

—Non asi ziñan?

—Bilbon abestu nebazan neure lenengo zerak. Arenalean, Arriaga ta Coliseo Alban, ainbat kontzertu.

—Zer abestuten zenduan?

—Geienetan euskal abestiak: zortzikoak eta olan. Gogoan dodaz «Aretx adarrean», Mendi mendian operako zatia «Ala ere», ta olakoak. Andik laster, Bartzelonara joan giñan, Sagrada Familia, ango eleiza andia barriztatu-edo egin zalako. Gabon inguru zan. Koralekoak —bakarrekoa neuk egiñaz— «Belengo portalian» abestu genduan. Asko atsegin izan jaken gure gabon abesti ori. Gero, Bilboko Korala nora ta ni be ara. Compostelan be izan giñan, ango Urte Santuan.

Orain iru urte-edo, Bilboko erri irratiak, abots zolientzat sariketa bat-edo eratu eban. Ara agertuta, lenengo saria emon eusten. Alan izan zan, Diputaziñoak nire ardurea artzea, Italiara biartzeko. Cordero zuzendariak eta Barozzi italiar maixuak entzun, eta batera egozan ni Milanera ikastera biartzeko. ABAO'ko batzordeak eta Koralekoak bideak zabaldu eustezan.

—Diruz nok lagundu deutsu?

—Bizkai ta Bilboko Aurrezki Kaixa biak.

—Diru asko bearko da arako, ezta?

—Ba, begitu: illean 20.000 peseta inguru izango da, nire ango ostatu ta ikastetxeko ordain saria.

—Zer ikasten dozu?

—Lenengo eginbearra, abotsa ezitzea zan. Bide batez italiar berbetea ikasi, ta solfeu apur bat be bai. Lenengo urteko lana, orixe izan zan. Bigarren urte onetan, bearrik gogorrena, operak buruz ikastea, liburu andiak osorik.

—Italiar izkuntzea, gatxa ikasteko?

—Ez. Erreza izan jat. Gaur, bertakoak lez dakit. Esan ezik, iñok igarri be ez, emengo nazanik.

—Zer dozu ikasita?

—Bost opera-edo osorik: Rigoletto, Madame Butterfly, La Bohème, La Traviata, ta abar. Asteko naiko.

—Bilbon noiz abestuteko ustez?

—Izan leiteke datorren urtean. Zaratea dagoanez, izan leiteke baietz.

—ZIGOR euskal opera dala-ta, zer diñozu?

—Emen baiño lenago, Milanen entzun nebazan zati batzuk, laguna neban abestu ebana ta. Eder ederra dala uste dot; baiña obeto egongo litzake, beste operak egiten diran lez, antzeztuta egingo balitz. Euskeraz eginda gaiñera, asko arrituko litzakez. Nik uste dot, ABAO'k egingo dauala ori. Euskeraz, opera onak doguz lendik be. Usandizagaren «Mendi mendian» batez be. Gure entzutea zabaltzeko, oso egokiak izango litzakez; era berean, Euskal Erriaren nortasuna ortik erakusteko.

—Euskal abeslari onak, nortzuk dira gaur?

—Goi maillako askorik ez dogu. Karlos Fagoaga on ona dala uste dot; gustu andia dau abestuten. Lagun andi dot.

—Gerorako, ze asmo dozu?

—Lenengo ta beti, asko ikasi. Aurten izan leiteke, Italian nunbaiten agertzea. Datorren urtean Bilbon, Jaungoikoak gura badau. Emen ez dot ezer egin gura, ondo gertuta egon arte.

—Diskorik egiteko asmorik?

—Asmorik bai; esan be, egin deuste. Baiña gertuago egon barik, ez dot gura. Urrengo natorrenean-edo, egingo dogu teozter geiago.

—Besterik ezer, amaitezko?

—Euskaldun guztiei agur bat.

Agur bat emendik zeurl be, Fabian. Izan daigula laster Bilbon, zu entzuteko zoria. Ea ZIGOR abestuten deuskuzun. Ondo izan.

ZABALE

Euskerazko mezak Bilbaon

Begoñako Karmelon	8,—
Sagrada Familian	9,—
Zurbaraneko Sakramentinoetan	10,—
Deustuko San Felizisimon	10,30
Deustuko San Pedron	11,—
Begoñazpiko Andra Marian	11,—
San Antonen	11,30

Iralabarriko Frantziskanoetan

ZAPATUETAN ETA JAIEGUN BEZPERETAN, ARRATSALDEKO 6,30

Meza onegaz, domeka ta jaiegunetako agindua betetan da

Autopistetako neskak



Ona emen Alemaniako aldizkari baten irakurri doguna.

Udabarria asi da, eta barriro ikusiko doguz neskatillak autopistetan. Bideak zaintzen dituen poliziak gerturik dagoz, autopistetako bidekurutzetan eta ostatuetan dabiltzan neskatillen kontrola eroateko. Badaezpadako neskatillok ugari ikusten dira olako lekuetan, eta aurten ifioiz baiño geiago izango ei dira.

IRU BIDAR BIDE ERTZEAN

Ez bakarrik Alemania Federalean, baita alboko lurraldeetan bere, asko geitu dira, ara ta ona joateko baiño, beste asmo bategaz autostop egiten daberen emakumeak.

Igaz, izugarritzko barri bat eldu jakun Milanetik. Ango poliziak, uda denporako egun baten bakarrik, konprobatu egin eban, olako 8.000 emakume gitxienez ebiltzala Ipar Italiako autopistetan zear.

Euretariko kasik erdiak, neska peligrusak zirean; eta pillo andi bat, Alemanian jaiok.

Ori dala-ta, Italiako poliziak neurri gogorak artu ditu, moraltasun publikua zaintzeko. Aurrerantzean, emagalduek eta neskatilla menturazaleak euren asmoetan uts egin daien, uniforme barik ibilliko dira polizia batzuk, bazterrak jagoten.

Autostop egitea galerazota dago. Eta neskatilla batek lege ori iru bidar austen badau, polizia-etxera joan bearko dau. An,

bere izena artuko deutsoe; eta urte erdian, bere ibilkera guztiak poliziak kontrolatuko ditu.

Unada orretan bere kontra ezer ez badago, orduxean kenduko dabe bere izena polizia liburutik.

IPARRALDEKO BIDEETAN

Iparraldean, Dinamarkak eta Suezia erakarten ditue, iman bategaz lez, autopistetako neskek. Egoaldean Italiak egiten dauan lez.

Izanbe, millakada atzerritarrak joaten dira urtean urtean Iparraldeko uri nagusietara, Dinamarka ta Suezia «Amodioaren Lurra» ei dira-ta. Era ederra Alemaniako neska alaiantzat, bertara joateko eta ardurabako turistakaz subertea probatzeko.

Zorionez, an be ba dagoz lege egokiak, ekandu publikuak zaintzen dituenak. Poliziak eskatu ezker, edozein turistak probatu egin bear dau egiazko dokumentazioagaz, zein dan bere ogibidea eta bere gain biziteko medioak daukozala. Proba ori emoteko, ez da naikoa, sakelean momentu atan eroaten dan dirua erakustea.

Orrez gaiñera, neska bat autostop egiten atrapetan badabe, eta Maria bideetako bat dala konprobatzen bada, eskubidea

dauko poliziak, olako neskek beste barik ainbat ariñen naziñotik kanpora bialtzeko.

17.000 PESETAKO MULTEA

Neska alaiantzat, oso gatxak dira Alemaniako autopistak. Legearen arabera, autopistetako sartu-urten tokietan ezin daitezke oiñezkoak ibilli.

Olako lekuetan autostop egiten daberen andrazkoak, zein onak zein badaezpada-koak, multea dauke kasu bakoitzean. Orretan ez dauke zerikusirik poliziaren informeak.

Peligrosua da, gaiñera, autostop egiten dauan neska bat kotxean artzea, batez bere neska ori edade bakoa bada, edo bere gurasoen baimen barik autopistetan zear badabil.

Txofer askok, sasi-errukiz edo bape pentsatu barik artzen ditue olako neskek. Kasu orreetan bere, legea guztiz gogorra da, eta multak 1.000 markuraño eldu leitekioez kotxe jabeeri.

Olako neskatilla gazte bat kotxean artu dauanak, zer egin leike? Auxe, onena: Aren situaziñoa normala ez dala konturatuten dan baizen laster, eroan neskatillea urren-go polizia tokira eta bertan itxi. Orixe da, neskeari berari eta gizarteari egin leiskion mesederik aundiena.

Euskal idazleen I jardunaldiak

EGITARAUA

ERMUAN

Bagilla 28

- 15,30 - 17,30 Arrera
- 18,30 Lenengo ponentzia
- 19 Alkarizketa
- 21,30 Afaría

Bagilla 29

- 9 Jardunlarien urteera Hostaletik
- 10 Bigarren ponentzia
- 10,30 Alkarizketa
- 12 Taldeetan batzea
- 14,30 Bazkaria
- 17 Talde lanak emotea
- 18 Irugarren ponentzia
- 18,30 Alkarizketa
- 21,30 Afaría

Bagilla 30

- 9 Jardunlarien urteera Hostaletik
- 10 Laugarren ponentzia
- 10,30 Alkarizketa
- 11 Taldeetan batzea
- 12 Lanak artzea
- 12,30 Erabakiak

Santos Arana jauna

Abade birtutetsu ta on au il jaku, Bilbon il bere.

Baiña Bilboko egunkariak gizon aren neurrik aitatu ez daben ezker, geuk egingo dogu euskaldunon aldizkari onetan. Euskaldunen paper bakarra gaur dan egunean Bizkaian, ANAITASUNA dalako.

Bilbon jaioa izan ez arren, don Santos bilbotarra izan da euneko eun, arenbaten. Ona etorri zan gazte zala, ta San Juango eleizan izan zan abade laguntzaille, urte batzuetan.

Euskaldun jaio izan ez arren, don Santosek euskera ikasi eban; eta azken urte oneitan, euskaldunen illetetan errosario santua euskeraz errezau oi eban.

Orain ogetamabi urte sortu zan-anaiarteko gerratearen ondorenak, emendik urrun eroan euskuen don Santos, arik-eta Andaluciako lurretan esipe geratu zan arte, beste abade ta fraille askogaz batean.

Geroago, egon zan Sevillan elizgizon mailla aundiko bat, don Santos bere zeregiñetan laguntzat aukeratu ebana. Ain zuzen, Segura kardenal agurgarria. Aren alboan emon zituan don Santosek urterik naikoa; ta gerogarrenean, zaartzarorantz, barriren barri bere Bizkai ta Bilbo maite onetara biurtu zan, Enkartaziñoetan sorturiko eleizgizon apal eta ona.

Barrero Bilbora agertu zanean, leenago ezagutzen ebenak, leengo kristifiau berbera aurkitu eben don Santosengan. Arimaz ta biotzez, leengoa bera; gorputzez zaartxuago.

Orraitio, Andalucia aldeko nekaldiaren ostan, bere erri onetan be, nekeak barritu ta berratu egin jakazan, batekotik bestekora ibilli bearra sortuerazo eutselako. Eleiza bat laga eta bestean egon eta abar jarraitu eban, arik-eta Indautxuko Karmengo eleizan abade laguntzaille ezarri eben arte.

Arrezkero, Indautxun emon ditu bere azken urteak. Arimen maitetasunean bizi izan da; ta oraingo gazteen eretziz gaurkotasan osoa izan ez arren, aren itz argi ta sarkorrak entzungarri zirean berbaldi bero ta kezkatzailleetan.

Emengo aberri iraunkor onetan lan, neke ta samiña sarri askotan jasan ostan, betiko Aberri ederrean sarrera merezia izan daualakoan gagoz.

Karmengo eleizako abade jaunak opariximen ta berezia egin deutse. Aren gomutagarrian berba oneik irakurri giñeiz: «Orain bakean bertan bizi da, Kristogaz». Goian bedi, Jaunaren atsegin betean.

Nortzuk dabiz oiñez

Geroago ta gitxiago dabiz oiñez. Jesarrita ibiltea erosoago da, izan be. Eta erri aundietan —txikietan be bai orain— gorra ta beera ibilteko be, zurezko ta burdifiako kutxak daukez, zera jasogarriak, azenzorak. Eta baita eskillara ibiltaunak be, belaunak eta bularrak nekerik bapere izan ez daien.

Bideetan eta kaleetan arriskuak geitu egin dira, beribilletan doazanentzat eta oiñezkoentzat be bai, arranotan! Estadistikak argiro diñoie arrisku orreïn barri. Ikusi daigun munduan dabizan automobillak zenbat zirean 1966 gn. urtean, arrezkeroko zerzeladarik ez dogun ezker.

USA aldean, milla laguneko 398 kotxe ebizan; Canadian 282; Australian 265; Suezian 195; Frantzian 195; Alemanian 179; Bretaiña aundian 177; Italian 122; Espaiñian 33, Japonen 29. Arrezkero geitu direanak zenbat ete dira? Eta gaiñeko urte-

etan egingo diranakaz, nor ibilli oiñez bide-kaleetan?

Zine gorrotagarriak

Zineetako mintzen izenak irakurtea baiño ez dago, odola, gorrotoa, aragi-jokoa ta eriotzea besterik ez susmetako. Amurrua ta gorrotoa agiri da itzetan, irudietan. Baka-bide egokiak ete dira orreik?

Ta gaiñera, umeen jostailluak, jugeteak, zelakoak dira, batez be mutikoentzat saltzen dituenak? Gerra-usaiña besterik ez daben tresnak, pistolak, guda-jantzi eta abarrak. Gurasoak ez ete dira errudun zerik askotan, gaurko mundu onetan be?

Traketsaldian bizi gara, ta milla gauzatan bizi be. Negar egitea ez naikoa, oste-
ra. Oker dagoana zuzendu egin bear da; eta leenago egin ez dana, egin be bai, onerako baldin bada. Bide ona aukeratzea ez da beti errez.

KALEKOA

«Itxaroten zaitugu»

Esaera polita, bearbada politegia. Dana dala, esaera utsa, erabiltzen oi danez beintzat.

Irratiak eta telebisiñoak, izparringiak eta aldizkariak, agintariak, euren ordezoak eta urren-goak, goikoak eta bekoak, au da, mailla guztietakoak amaika aldiz diñoskue: ITXAROTEN ZAITUGU. Azkenik, erriak, beronek bere, jaso ta beretzat artu dau.

Begiz eta belarriz, bein eta barriz irakurri ta entzun eragiten deuskue: ITXAROTEN ZAITUGU. Ginasia dala, alako ta onelako kirolak dirala, geure gorputzaren onerako ainbat bide egoki ta eroso erakusten deuskuez: indartasuna, liraintasuna, edertasuna, bizkortasuna ta abar. Dana ondo dago. Guztia, izatez, ez jat txarto iruditzen. Baiña ez al dauka gizonak ezer geiago, bere soiña ezik? Beti zeingeiagokerietan jardun bear al dogu? Ez, ez dago gizartea aukerako unean, gai oneitan alegintzeko. Geure erria bere ez. Ezta urrik emon bere!

Erria, geure erria, lo zorroan ikusiaz, barnea erdi ustela daukagula, ia illetak jo bearrean aurkitzen garala, gai orreitan saiatzea ardu sagarrari dirdira eragitea beste da.

Edozeiñek daki, etxagintzea oiñarritik asi bear dala; ta era berrean, gizonaren oiñarria ta berezitasuna bere ariman dagoala, esate baterako, bere gogo, adimen eta pentsakeran.

Olan bada, ta olan baderitxogu, ze bide jarraitu bear dogun jakiñean gagoz. Esan daikegu ba nasa, ITXAROTEN ZAITUGU, danok entzun deiguen. Baiña ez gorputzari jagokon zaletasunean jarduteko, kultura ta jakintza sailletan baiño.

Lertu gaitez, bada, al dogun neurrian eta azkarren. Berandutxo xamar gabiz, ta ez da mundua geure obe-bearrez geldituko. Emon deiogun gizonari premiñazko dauan jakintza zaletasuna, gorputza zaintzeko gero be astia naikoa izango dogu-ta.

AMATIÑO

ABERASTU ZURE EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNAREN zenbaki onetan agertzen direan berba ta esakera batzuk.

ABURU (LN), ustea, eritxia. *Nire aburuz*: en mi opinión.

ALDARTE (BGLN), gogaldia, umorea.

ARABERA (L), *según, conforme* erderaz. *Legearen arabera*: según la ley.

ARRETA (BG), ardurea, atentziñoa, interesa.

AULDU (GLN), makaldu.

AUTATU (GLN), aukeratu, elejitu.

BERAZ (GLN), ori dala-ta, orregaitik. *Erderazko por consiguiente*.

BIRIKIAK (B), pulmoiak.

DOITZAILLE (BGLN), doitutun dauana, ajustadorea.

ENGAIATU (L), zerbait egiteko obligaziño edo konpromisua artu. *Frantsesezko s'engager*.

ENPARADU (B), geratzen dan beste guztia. *Beste enparaduak*: los demás.

EPETAN (BG), erderazko a plazos.

ERDI ARO, erderazko *Edad Media*.

ESIPE GERATU (B), erderaz *quedar confinado, re-cluido*.

ESITU (BGLN), erderazko *limitar, limitarse*.

ESNE MAMIÑETAN BIZI (G), oparo bizi, aukeratu bizi.

ESTOKALARI (LN), tornerua, estokeagaz lan egiten dauana.

ETSI (BGL), *convencerse* erderaz. *Etsi det ez dala etorriko*: me he convencido de que no vendrá. *Etsi etsian*: decididamente, convencidamente.

GARDEN (B), garbia. Likiduakaitik bakarrik esaten da. *Odol garden gardena bota dot*: he arrojado sangre muy pura.

IÑOREN LEPOTIK BIZI (BG), iñoren kontura bizi.

ITZALTEGI (B), toki illuna.

JASAN (L), erderazko *soportar, sufrir*.

KALE GORRIAN BIZI (B), miserian bizi.

KIRIOTSU (B), *nervioso* erderaz. *Kirioetaraiño sartu jat miña*: el dolor se me ha metido hasta los nervios.

LERRONDO (N), piñua, lerra.

LOTU ZERBAITERI (LN), *dedicarse, entregarse a algo* erderaz. *Otoitzari lotu*: entregarse a la oración. *Bizitza barri bati lotu*: emprender una nueva vida. *Ba dakit, hairitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz, ni lan huri lotzea*: yo bien sé que muchos se admirarán y encontrarán extraño que yo emprenda este trabajo (*Axular*).

MAISTER (BGLN), erderazko *inquilino*.

MENDE (LN), gizaldia, sekulua. *Mendez mende, menderik mende*: de siglo en siglo.

MINTZ (BGN), arrautzak, gaztaiñak, azurrak-eta barruan dauken azaltxu meea. *Membrana, película* erderaz. *Ziñemintz*: película cinematográfica.

MINTZATU (LN), berba egin, itz egin. *Gizon ori ondo mintzatu da*: ese hombre ha hablado bien.

ORNIDU (B), erderazko *proveer*.

OSTERA (B), ibiltaldia, biajea.

OTS (B), *golpe, momento* erderaz. *Ots baten edan*: beber de un golpe. *Ots otsean*: a cada momento.

PIKORTU (L), birrindu, zatitu.

SAIATU (BGN), alegiña egin.

SALATU (BGLN), akusatu, denuntziatu.

SUNTSITU (L), ondatu, bapeztu.

TINDIKA (B), apurka, geldiro geldiro.

XIMEN (L), erderazko *curioso, pulcro*.

ZALANTZA (G), dueda.

ZIRTOLARI (LN), arin eta sonatsu erantzuten dauana.

LANTEGI ERRAMINTAK

LANTRESNA GUZTIETARIKOAK

GALTZAIRU KALIBRATUAK

LEUNKETA GAIK

FERRETERIA UNZETA

Apartado 18. Ibarrecruz, 14

Urrutizkiña 71 10 00

EIBAR

JAKIN

JAKIN aldizkariaren xedea
euskerari laguntzea da,
euskerazko kultura egiten saiatzea.

Urteko sei aleen arpide saria: 100 pta.

Alea: 25 pta.

Eskatu:

JAKIN — Arantzazu — OÑATE — Gipuzkoa

Martin Aldazabal

EUNAK

SOIÑEKOAK

AZPIKOIALAK

Emakume, gizon, gazte ta umeentzat
Baita etxerako gaiak, zatika naiz atonduta

Telefonoak: 210484 - 231285 - 231286 - 231287

Tendería, 3

BILBAO (5)

ANAITASUNA

amabosterokoa

9

Euskalerriko Anai Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURU

Zuzenbidea: Torre, 3, 1.º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaiña: 75 peseta

Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 162 gn. zenb. — 1968'ko bagillak 15

D. L.: BI 1.753 — 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-12

EZAGUTU ZURE ERRIA

Bizkai ta Araba euskal errien mugarri lez, Gorbela mendi ederra daukogu. Mendi onen muiño tartean erdi ezkutauta nagon erria nozu Zeanuri.

Amalkatxo mendigoizale igaro da emendik, Gorbeiko aize ozkirri garbiaz birikiak garbitzeko asmoz. Neska-mutil talde ederrak be bai, biotz alai, abeslari, euskeraz.

Arrati alde guztia, mendizaleen begiko da. Antxe naz ni, Zeanuri, mendi ederrez apaingua. Nire urak barriz, Gorbeiko kurutzepean sortuta datoz. Emengo uren gardenala!

Mendi, atx eta errekez betea, ederra nazala esaten ez naz lotsa.

Zabalik ifion bada, erri zabala nozu ni. Bizkaiko andienetakoa naz. Lekanda ta Barazar'pean, zabalak dira nire auzoak. Sakabanatuta auzoak, basetxeak areago. Erritar naiz erbesteko izan, naiko leku da guztiontzat.

Auzoon izenak: Iburguen, Otzerin Mendi, Uribe, Astერი, Arzuaga, Altzuzte, Ipiñaburu ta Undurraga. Baten bat aaztu bajat, ez asarratu; erri zaarra naz, ta zaarrei asko parkatu bear deuskuzue.

Ni, neu, Zeanuri, zaarra naz; baiña zuok, nire auzoak, ez ete zaree ni baiño zaarago? Baijekoan nago. Iñoiz, erri berezi be izan ziñeen, idazti zaarretan agiri danez. Dana dala, ifioiz asko izan bagifian be, gaur ifion ezer lortzekotan, batera ta al danik alkartuen jokatu bear dogulakoan gagoz, ezta?

Ai, ni len ezagutu baninduzue! Gaur nire mendiak, len eukezan edertasun asko galdu dabez. Lerrondoan aurka ez nago, au be onurakorra izan daiteke-ta; baiña, neure galxoaz batera etorrikoia dan lez, ez dot ainbestean maite. Nire aretxak eta pagoak, tetuenera joanak dira.

Bizkaiko Aldundiak ez dau Naparroakoak beste alegin egin, mendietako zugatz ederrak zainitzen eta barritzen. Nire aresti ta gaztañadiak ba ziran angoak besteko ba! Niri, berezkoa nebana erantzi deuste; ordez, lerrondoiz josi.

Erribaso len ziranak, erwiko barik, orain erritar batzuenak egin dira asko. Jaubeak uri andietara joan ziran, maisterrak emen itxita.

Lan egiten diarduen baserritar maisterrok, ifiorenak diran lurrotan, biotzik ezin bota daikee.

Mendiak lerrondoiz jantziat batera, nire artaldeak gitxitzen doaz. Oraindifo, ba dira banaka batzuk; oneik, len baiño buru geiago dabe; baiña asko gitxitu dira.

Gitxitzen

Guztietan larriena, erritarrak joatzala gitxituten. Gaur, 2.038 dodaz, 544 senditan. Oneitatik, 500 sendi, berbertokoak dodaz; 44-edo, erbestetik etorriak.



Zeanuriko baserritar bat

Z E A N U R I

Orain 100 urte, 2.600 erritar nebazan, guztiak bertokoak. A! baiña ordutik ona, Lege Zaarrak galduta, lege barriak auzokoen menpeko jarri ginduezan Sei Erriok. Zenbat bidar dodan gogoan Gernikako Aretxpean neure 68'garren jarlekua! Orduan, neure buuruaren jaube nintzan.

A galdu nebanetik, makaltxo nabil. Nire gazteak, geienak, ez dira ona ezkontzen. Umeak gitxitzen doan erria, zaartzarora doa. Etxe barririk egiten, ez dot ifior ikusten. Arduratan nago.



Zeanuriko jauregi zaarra

Euskerea

Ba dakizu: euskerea emen, nagusi da oraindifo. Orretan makaltasunik ez neuke gura.

Erri au nazanetik, nik ez dot euskeraz baiño egin. Gauko umeak izango ete dodaz ba, neure izkuntzea galduko dabena? Ez dot uste.

Bazter guztietan, euskerearen alde diardue. Urietako gazteak ikasi guraz diranean, nire neska-mutillak be, arrokerialdi batzuk gorabeera, ez nabe galduko.

Oraintxe urte batzuk, gorriak ikusita nago onetan. Zadorrako urrindar lanetarako, 2.500 lagun erbesteko etorri jatazan. Ordutik dodaz 44 sendi erdal-dunok; baiña, zorionean, ez ninduen zapaldu.

Erritar geienakaz pozik nago. Emen be, ba dakizu, beste lekuetan lez, ba dira oiñutsik dabilzitan txakur batzuk. Euskaldun galztoak dodaz; orreik gorabeera, ba noa aurrera, neure seme onenakaz.

Ikastolak

Nire umeak, non-ikasi onak dabez. Amar ikastola doguz errian. Beste ainbeste irakasle. Zoritzarrez, bi ez ta beste guztiak erdal-dunak dira. Onela, umeak eta irakasleak ezin ondo alkar artu.

Onein gaiñera, *Bizibide Ikastolea* oraintsu egiña dot. Oso ederra da benetan. Eusko jasera egiña. Berton, 300 gaztentzako lekua da. Estokalari, doitzaille ta industri marrazkilariak egiten dira ango ikaske-takaz.

Egokia da benetan niretzat ikastola au. Nire seme askok, luginza ta artzaintzea itxi bearra dabe. Baserritarrok, ez deusku lagundu gaurko agintaritzek oraintsurarte. Askorentzat berandu da orain. Gaur ez dot sendi bakar bat be, nekazaritza utsetik bizi danik. Beste lanetan, azkenengo ta guztien aspiko ez izateko, ondo etorri jake, bai, ikastola au gazteai. Zorionak eta eskerrak, lagundu dabon guztial.

Eleizan

Aipatu deusudaz ba len, ainbat auzotegi. Guztiotan baselizatxoak dira; Andra Mari eleiza nagusia, ta beste sei. Eleizgizon jatorrak dodaz berton, erri-zaleak. Ez dot merezi be gitxiago, ainbeste seme abadetzarako emonda gero. Gaur, abadegeiak gitxitzen doaz. Zelan joango dira ba... mutil onak, euskaldunak dirala-ta, jaurtika darabillezanean?

Kristau ikasbidea, auzo guztiotan emoten da.

Ementxe bizi dot, asko maite nauan abade jakintsu ta euskaltzale goimaillako bat: Manterola'tar Gabirel jauna. Euskereari zenbat lagundu deutzan ezin esan daiteke. Jainkoak emon deizula zaartzaro luze ta ona.

Esandakoetatik, onezkero ikusi dozu, adiskide, nor nazan. Arerioak gura leukeen balzen txarto ez nago; nik nai neukean balzen ondo be ez. Erritar on onak dodaz; baiña aspaldiko guztioak onli bakar batetik irazi-bear onek, nortasuna makaldu deute: lotan dagoz. Euskaldunak dira; baiña euskotartxuago izateak ez leuskioe kalte txikienik egingo. Au barik, ez dabe jakingo euskaldun zetarako izan.

Salatu zer egingo dozun?

Neure lotsarako, auxe esan bear deusut: gagozan sasoietan, oraindifo nire lau auzotegi, tximistargi barik edo ganorazko argi barik daukodazala.

Nire gazteak, jolastoki bat barik, txarto dagoz. Ume dirala, erbestera doaz.

Ez uste izan gero, onek egin ezifiak diranik. Zeanuriko aiuntamentua, Bizkaiko aberatsena izango da. Milloi bi daukoz, oraintxe be, kaixan. Zadorra ta Mendizabal, urrindar tokiak, amazortzi milla ogerleko emoten deutoez illero. Ori dok oril!

Ondasun pillo ori *oskidun sitsak*-edo jango ete dauan, bildur izatekoa da. Erriarena da diru ori, ta erriarentzat bear leuke. Olan geldi eukiteko, ernari ete dira diruok? Kumak egindakoan eralgiteko ete dagoz?

Agurra

Oneizek izan dira, Zeanurik azaldu deustazan poz-tasun eta ezbearrak. Erri onen delak iratzartuko al gaitu!

Gorbei tontorreko Kurutzek, «eusko uzarra» danta, zaindu dagitla erri au, iruntsi gura leukeen piati galgarrien erpetatik.

SALATARI